

**GOBERNU JUNTAK 2017.09.19an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA

ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA

ETORRI GABEAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko irailaren 19an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako aktak onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU 2017ko uztailaren 11n, 27an eta irailaren 6an egindako bilkuretako akten zirriborroak.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2016ko Kontu Orokorra onartzea

Azterturik 2016. ekitaldiko Kontuak eta Kontuen Egoera Orriak, eta Gastuen Aurrekontua erkatu ondoren kontuen likidazio eta egoera-orriekin, 2016.12.31ko egoera-balantzearekin eta data bereko emaitza-kontuarekin, baita abenduaren 31ko kutxako zenbaketaren emaitzarekin ere, eta azterturik halaber ibilgetuko parte diren ondasunen aldaketak, baita pasiboen aldaketa ere, Gobernu Junta honek uste du behar bezala justifikaturik daudela kontu horiek.

Bestalde, jendaurrean ikusgai jarri dira aipaturiko Kontuak 15 lan-egunez, eta ez da batere erreparatu edo oharkizunik horietaz; beraz, Kontuen Batzorde Bereziak uste du onartu egin behar direla kontu horiek.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2016ko ekitaldi ekonomikoko Kontu Orokorrari onespina ematea.

2.2.- Foru Kontratazio Zentrala; argindarraren espediente berriari atxikitzea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegoen hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, argindarrez hornitzeko kontratazio espediente berria irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek horniketa honen beharra duenez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Argindarrez hornitzeko Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.

2. Foru Kontratazio Zentralari kontratu honen esleipen irizpideei buruzko ondorengo proposamena luzatzea: Prezioari eta arreta komertzialari dagokien balorazio portzentajea gutxitu, eskainitako energia berriztagarriari eta potentzien eta energia erreaktiboaren optimizazioari dagokien portzentajea gehituz.
3. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria sinatzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena ematea erakunde honen kontsumo elektrikoaren datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.

2.3.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten den behin betiko bermea itzultzeko espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Ondorengo bermea itzultzea:
 - Enpresa: EKO GUARDI, S.L.
 - Kontratua: Hondakin arriskutsuen kudeaketa (2009)
 - Zenbatekoa: 5.930 €.

2.4.- Mankomunitateko gela bat erabiltzen lagatzeko hitzarmena luzatzeko Gurutze Gorriaren eskaera

2016ko irailaren 28an Mankomunitateak Debagoieneko Gurutze Gorriarekin hitzarmen bat sinatu zuen Debagoiengan Errefuxiatu eta Babes Internazionala eskatu duten pertsona eta familiei zuzendutako Programa garatzeko Zaldibar eraikinaren 3. solairuko sukalde ondoko gela urtebetez dohainik erabiltzen lagatzeko.

Orain Gurutze Gorriak hitzarmen hau beste urtebetez luzatzea eskatu du, hau da, 2018ko irailaren 27ra arte.

Gobernu Juntak, eskualdean garatzen ari den programa honetan laguntzen jarraitzeko asmoarekin, eta kontuan izanda ez dagoela lagatako gela hau erabiltzeko beste beharrik, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Debagoieneko Gurutze Gorriarekin 2016ko irailaren 28an sinatutako hitzarmena urtebetez luzatzea, hau da, 2018ko irailaren 27ra arte.

2.5.- 2016ko Programen kosteak

Kontu-hartzaileak, Anderrek, Ingurumen Zerbitzuko Programa desberdinen 2016ko kostuak aurkeztu ditu xehetasunez.

Jakinaren gainean gelditu da Gobernu Junta.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Etxean erabilitako olio biltzeko kontratazio espedientea; eskaintza bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2017ko uztailaren 11n egindako bilkuran, sukaldean erabilitako olio biltzeko, bildutako olio kudeatzeko eta edukiontzia, ekarpen-guneak eta erabiltzailearen ontziak garbitzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Lizitazio iragarkia argitaratu, eta horretarako emandako epean bi proposamen aurkeztu ziren: RAFRINOR, S.L. eta ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L.

Uztailaren 28an, Kontratazio Mahaiak bi proposamen hauetako 1 gutun-azala ireki eta bertan sartutako dokumentazioaren kalifikazioa egin zuen, RAFRINOR, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena baztertzea erabakiz, 1 gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa sartzeagatik, eskaintzaren sekretua hautsiz, eta ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresak aurkeztutako dokumentazioa onartuz.

Onartutako eskaintza bakarrak Baldintza Agirietan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzenez, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita 1 gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.2.- Epeleko zaborteziaren egoera

Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, Landerrek, Epeleko zaborteziaren egoeraren berri eman du.

Esan du une honetan Ingurumen Zerbitzuan egon daitezkeen aukerak aztertzen ari direla eta Gobernu Juntaren hurrengo bilerara ekarriko dela gai hau.

4.- LEHENDAKARITZA

4.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

17/50.- 1.- Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratua ARIZMENDI KOOP. Elkarteari esleitzea 72.500 €-ko prezioan.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

17/51.- 17/17 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMO (105.941,86 €).

17/52.- 1.- M.A.E. kontratatzea uztailaren 11n goizez, 14an eta 26an D. G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, eta uztailaren 11n arratsalde, J.L. M.ena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

2.- J.T.L. kontratatzea uztailaren 17tik 28ra M.L. langilearen ordezkapena egiteko, eta irailaren 1etik 8ra G.I. txofer-zamaketariarena, oporratik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- E.A.I. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Uztailaren 19an, arratsalde, M.E. Epeleko zabortegiko zaintzailearena.
- Uztailaren 19an, goizez, D.G. Garbiguneko zaintzailearena.
- Uztailaren 24tik 29ra, J.L.M. Garbiguneko zaintzailearena.
- Abuztuaren 1etik irailaren 2ra, A.L. Garbiguneko zaintzailearena.
- Irailaren 4tik 9ra, J.L.M., Garbiguneko zaintzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- C.B.G. kontratatzea Epeleko zabortegiko zaintzaile lanak ikasteko uztailaren 19an goizez, eta J.A. zaintzailearen ordezkapena egiteko abuztuaren 7tik 14ra eta irailaren 1ean. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- J.E.I. kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Uztailaren 21ean goizez, Epeleko zabortegiko zaintzaile lanak ikasteko.
- Uztailaren 24an, J.A. Epeleko zabortegiko zaintzailearen ordezkapena egiteko.
- Uztailaren 26an, Arrasateko ibilbide komertziala egiteko.
- Uztailaren 27tik irailaren 2ra, D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko.
- Irailaren 4an eta 5ean, A.U. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

6.- J.A.B. kontratatzea uztailaren 24tik 28ra G.I. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko, eta abuztuaren 1etik 14ra S.C. langilearena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

7.- A.A.G. kontratatzea uztailaren 26an hondakinak biltzeko Oñati-Aretxabaleta ibilbidean zamaketari bezala, eta abuztuaren 16tik irailaren 1era S.C. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

8.- J.O.G. kontratatzea abuztuaren 8tik irailaren 1era J.L. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko, eta irailaren 4tik 18ra I.A. langilearena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

9.- J.R.A. kontratatzea irailaren 4tik 29ra J.D.T. zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/53.- 17/18 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (28.898,77 €).

17/54.- 1.- Etxeko hondakin bilketa eta garraio zerbitzuko ibilbideen denbora estandarrak finkatzeko kontratua MTM INGENIEROS PARA LA MEJORA CONTINUA, S.L. enpresari esleitzea 35.400 €-ko prezioan, gehi BEZa.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

17/55.- 17/19 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA BERROGEITA BI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA HAMALAU ZENTIMO (142.485,14 €).

17/56.- 1.- Ondare erantzukizuneko espediente administratiboa abiaraztea, Adela Ormazabal Farras andreak goian adierazitako gertaerengatik sufritutako lesioengatik kalte-ordainerako eskubidea dagokion zehazteko helburuarekin.

2.- Mankomunitate honetako funtzionario den Belen Txintxurreta Iparragirre andrea espedientearen instruktore izendatzea.

17/57.- J.J.B. langileak aurkeztutako erretiro partzialeko eskaera onartzea, 2017ko abuztuaren 18tik 2021eko abuztuaren 17ra arte (65 urte bete arte) %25eko lanaldiarekin dagokion lan kontratua sinatuz.

Aldi berean, lan poltsa erabiliz, J.A.B.Ri errelebo kontratu bat egitea, %75eko lanaldiarekin epe berdinerako, 2017/08/18tik 2021/08/17ra.

Lanpostu honi dagokion ordainsaria ordainduko zaie.

17/58.- 1.- Debagoieneko Mankomunitateko 8 udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratua ENVISER SERVICIOS MEDIO AMBIENTALES S.A.U./SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L./ALTUNA Y URÍA S.A. aldi baterako enpresa-elkarteari esleitzea urteko 2.349.771,04 €ko prezioan, gehi BEZ.

Halaber, edukiontzien edo edukiontzien zatien horniketaren bat egiten bada, ondorengo unitateko prezioak ordainduko dizkio Mankomunitateak aipatu aldi baterako enpresa-elkarteari:

- 2.200 l-ko edukiontzia: 630 €, gehi BEZ.

- 3.200 l-ko edukiontzia: 720 €, gehi BEZ.

- Sarrerren kontrolerako unitate balioaniztuna: 250 €, gehi BEZ.

- Alboko kargako edukiontzia kubeta, 2.200 l-koa: 315 €, gehi BEZ.

- Alboko kargako edukiontzia kubeta, 3.200 l-koa: 405 €, gehi BEZ.

- Erabiltzaileek hondakina sartzeko aurrealdea, 2.200 l-ko edukiontzirako: 180 €, gehi BEZ.

- Deskarga tapa, 2.200 l-ko edukiontzirako: 180 €, gehi BEZ.



- Erabiltzaileek hondakina sartzeko aurrealdea, 3.200 l-ko edukiontzirako: 180 €, gehi BEZ.

- Deskarga tapa, 3.200 l-ko edukiontzirako: 180 €, gehi BEZ.

2.- Kontratu honen aurka kontratazioaren arloko errekurtsio berezia jartzerik dagoenez, aldi baterako enpresa-elkartearekin dagokion kontratua sinatuko da erabaki hau jakinarazi eta hamabost lanegun igaro ondorengo bost eguneko epean.

3.- Kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Gipuzkoako Bide Garbiketa Publikoaren hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

17/59.- 17/20 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO (296.961,42 €).

17/60.- 17/21 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira SEI MILA ETA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (6.014,92 €).

17/61.- 1.- Mankomunitateak jasotako etxeetako hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratua HONDAKIN, S.L. enpresari esleitzea, ondorengo prezioan:

- ✓ Hondakin arriskutsuak edukitako ontziak kudeatzeagatik: 250 € tonako, gehi BEZ.
- ✓ Pintura-hondakinak kudeatzeagatik: 370 € tonako, gehi BEZ.
- ✓ Aerosolak kudeatzeagatik: 1.500 € tonako, gehi BEZ.
- ✓ Gai kimikoak kudeatzeagatik: 1.200 € tonako, gehi BEZ.
- ✓ Disolbatzaileak kudeatzeagatik: 270 € tonako, gehi BEZ.
- ✓ Itzalgailuak kudeatzeagatik: 1.500 € tonako, gehi BEZ.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei "*Convenio colectivo de recuperación y reciclado de residuos y materias primas secundarias*" delakoa aplikatuko zaie.

17/62.- 1.- Mankomunitateak jasotako papera eta kartoia saltzeko kontratua ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresari esleitzea, ondorengo prezioan:

- ✓ Edukiontzi urdinetan eta atez ate jasotako materialak (EN 643:2014 arauaren 1.01 KALITATEA, "paper eta kartoi nahasketa arrunta"): 111 € tonako.
- ✓ Garbiguneetan eta denda eta industrietan jasotako materialak: (EN 643:2014 arauaren 1.04.01 KALITATEA, "paper eta kartoi ondulatu arrunta"): 105 € tonako.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

17/63.- Z.G.S. eta O.G.B. lan orientatzaileak 2017ko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko funtzionario izendatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Etorkizuna Eraikiz” programaren barruan finantzatutako “Gizarteratze Sarea” proiektua garatzeko.

Hileko ordainsari gordina guztira 2.346,23 €koa izango da, honela banatuta:

- Soldata: 940,43 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 402,27 €. (18)
- Berriazko osagarria: 1.003,53 €.

17/64.- 1.- Debagoieneko Mankomunitatea demandatu gisa agertzea demanda honetan (hitzezko judizioa 197/2017-B).

2.- Abokatu-lana EKAIN Aholkularitza taldeko JON ANDA LAZPITA abokatuari ematea, aipatutako demandan Mankomunitate honen interesak defenda ditzan, eta honako prokuradore hauek izendatzea:

- Bergara: JOSÉ ALBERTO AMILIBIA MÚGICA.
- Donostia: M^a LUISA LINARES FARIAS.
- Bilbo: BEGOÑA FERNANDEZ DE GAMBOA IRARRAGORRI

3.- Ebazpen honen berri Gobernu Juntari ematea datorren bilkuran.

17/65.- - J.T.L. kontratatzea irailaren 11n S.C. zamaketariaren ordezkapena egiteko, eta irailaren 18an eta 19an J.R. zamaketariarena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

5.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.